

Eta Iluntziko baklan
::erbatēk dafal kantari:
«Dana emon blaŕ yako
mate dan azkatasunari»

(Lauaxeta: "ARRATS-BERAN"
Mendigoxaliarena; Bilbo.)

1935

S O I N · G O G O A K

αἰνοπαθῆ πατρίδ' ἐπόφομαι
(Anakreon)

ὑπέρ τῆς σωτηρίας
τῆς πατρίδος

ESKAINNTZA :

A Begoña Maguregi y Pili Oregi de Algorta
que fraternalmente me pusieron bálsamo
en las heridas, con cariño y agradecimien-
to,

Egileak.



Euskal Biblioteka Labayru



1011686

LITERATURA / N. 1280

Legezko gordailua: BI-852-93

LANKOPI, Colón de Larreategi 16, BILBO

AIZKOLARI

Enbor-gainean zutik gizona,
ikusle-aldra jarrita inguru.
Plaza guztian isiltasuna,
gerta-lanetan dabilta aiduru.

Aizkora hartu esku-artean,
egur gainean oinak josirik,
aizkora aidean diz-diz hastean
arnasa-hotsa ere isilik.

Lehenen kolpe-hotsarekin bat
bihotzak beren taupadak gehitu.
Besoak gora beeraka hainbat
aizkolarien gerriak zailu.

Jo ezker-eskuin soinu lehorraz
ezpalak jauziz alboetara.
Proba-gizonen ukaldiz arnas-
estu bezala denok begira.

Botileroak makila-ikutuz,
ikusleek mihi leunaz nai dute
lagundu,haien lana aipatuz.
Aizkora aidean zut beso bete.

Enborrak ager digu mamina,
azken jo-aldi dukete laster.
Atsedeen labur hartu,ekina
berriztu.Izerdiz gizonak eder.

Oraintxe batek aurea hartzen
Bestea,baina,hor dabil azkar.
Ikusleek,bero,adore ematen.
Aizkolariek bizkortu elkar.

Enborra zati bi egin eta
irabazleak aizkora an josi.
Besteak gutxiz galdu indarketa.
Txaloak,berriz,biek merezi.

PELOTARI

Pelotariak eskuak bero-
beharrez ekin ta ekin dabiltz.
Josta-lekuan bada berbaro.
Tartekariak artega,aldiz.

Leen sakedunak badu aldea,
Tartekariak ziri-aldarri.
Ikusleek bizkor hartu eskea.
Ez du axolik urdin zein gorri.

Jokalarien oinak irakin
bizian,han kak dantza neurtuan.
Begien jarrai besoek ekin.
Gorputz lerdinak ez amore eman

Jendea bero eztabaidaka.
Dirua dantzan pelotakin bat.
Pelotariak bizi,oihuka,
eutsi ezinik hogeitik harat.

Pelota gora, atzera doa.
 Atzelaria gora so dabil
 atzeraka ta azkar besoa.
 Aurrelariak orma bi trankil.

Bestea oztaz bertara.
 Aurkalariak zabalerantza
 jaurti pelota, ez duke ikara.
 Atzekoak doi-doi j aso beza.

Aurre-ormara motel bai dator,
 apu rtuloihu gorriak gogoz.
 Urdina aurrera oldartu gogor,
 hantxe jokoa galdu du gaurkoz.

ARRAUNKETA

Ibai-ertzean j ende piloa,
 ur-bazterrean trainerak, naasi,
 atzera-aurrera. Hastera doa
 arraunketa ta denak urduri.

Arrainak antzo ontziak jira-
 biraka, jaia noiz den hasiko.
 Arraunlariak lerrotu dira
 ikurrinaren ondoan tinko.

Azkenengo itza eten ahoan
 danbada joaz batera. Ekin
 bizian datoz norgehiagokan
 ta arraun grakada denon atsegin.

Gorriek duten aldea akuilu
 antzo besteentzat' Aurrera azkar,
 begiaurrean berddin ditugu,
 sokatiran lez dabilz su ta gar.

Batzuek oihu adoregarri
egin bereei;besteak,aldiz,
elkarri egin aldea neurri
zehatzez jakin gura,al balitz!

Begietatik urrundu-ala
eguzki-izpiek arraunetan trill
eta ateratzen urre-ezpala.
Denok begiak balizara bil,

bira nork leenen dagian,baina
apar-txxinpartak baino ez ager.
Itzul-orduan bai denek miina
zorrotz.Indarrak balio.itza alfer.

Arraunlarien besoak baizen
indartsu gure eztarri latzak.
Inork nekerik ez txalo jotzen.
Hortxe sartzeaz hiru trainerak.

9

Gorriek jaso dituzte arraun-
uztaiak.Hoien jarrai gorputza
uretaraino makurtuz iraun
besteek.Guk eman hiruei aintza.

HARRIJASOTZAILE

Berreun ta hogeitabost
 kiloko harritzarra
 atera berri dute
 enparantza erdira.

Harrijasotzailea
 harrian begi trinko.
 Bada ikusleengan
 esan beharra franko.

Isilune sakona
 egin da inguruetan.
 Gure gizona indarka,
 denok arnas estuan...

Indartsuak bere eskuz
 harria inguratu-
 ala,ikusleak hura
 begi biekin zaindu.

Egin du bere jaso-
 aldi beso giartsuz.
 HUra arnasa zabalez
 ta gu lasai txalotuz.

Zelai zabaleko
 bide-ertzean zuhaitz
 batzu ametsetan
 arratsaldeagaz.

Zeru ozkarbian
 argia zilarrez.
 Baserri-ingurua
 atsedan ta bak ez.

Errekak urruti-
 bideetarako hots;
 txori batek txistuz
 eguratsa zorrotz.

Udaberria dator
 .argi bigunezko
 gurdian jesarrita;
 mila margotako
 tximeletak bidea
 zabltzen ta alboko
 menditik musuz haize
 gozoa yatorko.

Harri bizi-artean,
 belar gozoa lagun,
 ur-behera kantari,
 bazterrak ilun.

Beti bakarrik, beti
 kantuz ta beti garden.
 Inguru-isiltasunak
 babes ematen.

Noan neu ere hola,
 garden ta bakardadez,
 bizitzari abesti
 leuna eginez.

ODOL-TANTA

Goizaldez barneratu
 zenidan arantza
 zorrotza sakonkiro:
 zeure erantzun latza.

Iluntzean odola,
 atera zitzai dan,
 mingots, zeure irrifarre
 arina ikustean.

TXORI BELTZA

Hego-ukaldi isilez
 kokatu zaigu lur gaiian
 ilunkera arpegi motz,
 lurtarron urratsen zain.

Mendi-ertzak,soro-barren
 eta bide-bazterrak
 est:aliak ditu goibel
 Orobegi gaiztoak.

Batera zein bestera so
 bere begi ilun-zorrotz
 eta luma luze-latzak
 daragite ikara hotz.

Ihes nai nik beldur handiz,
 haren b egipean ez.
 Begiak gogo-barnera
 eta garraisi batez

iratxo antzo irten zait
 gautxori beltz bat dar-dar
 haren kume bero-bero
 bailitzan,handitzear.

ILUNKERA

Urruntzerako
 eguzkia agur-
 ka doanean
 jarri naiz uzkur.

Ortzeko iz ar
 nagusia antzo
 bizi-irrika
 gelditu zait lo.

Naizen hau ilun,
 inular hodei
 gorriskek barne-
 odoletan blei.

Itsas-uhinen
 susmur geldia
 gogoan dut,min
 sakon -gazia.

Gaueko haize
 beltza,abarrrotsez,
 bihotz-orri ihar
 artetik ihes.

GEZIA

Soin-gogoak
 ilunpetan,
 barru dena
 oinazetan.

Nainora so,
 ilunaren
 lodiak min
 han ta hemen.

Bihotz-zauriz,
 begi-malkoz,
 bizi behar
 ilun-mingots!

Ez dakit zein
 lekutatik,
 ez dakit nork
 jaurtikirik,

gezi gaizto
 bat josia
 daroatsut
 -hain bizia!-

antsiz eta
 malko-odolez
 naizen hau blai-
 blai eginez.

Harrez gero
 bide berri
 bat zabaldu
 jatan,gorri-

gorri egun-
 argiz bete,
 goizalde eder
 beti arte!

BIZI-INDARRA

Saka ta saka arantza
 zorrotza barnera
 zait guztiz bihotzean.
 Muinaren muinera
 heldu zait arantza mee-
 mingotsa.Minbera
 zaizkit gorputz-gogoak
 oihu egin guraz!

Ez atera,ottoi,ez
 ukitu,neurea
 dut gorputz-animetan
 arantza maitea.
 Ez atera,ez uki,
 mesedez,bakea
 ez arren bizi-indarra
 dudan oinazea!

TXINGAR BIZI

Bidez nindoan bein bizitzan zehar,
 noragabe,ing uru zenaz ahazturik.
 Giza-iz'akiak irakindurik;
 neu bake ederrez barne leertzeaz.

Ez dakizut nondik,barnera txingar
 gori bat erori zitzaidan.Goitik
 ala albotik ote?Ez dakit non dik.
 H ementxe dut sutan,goiz ta inular.

Harrez gero ez dut bakerik inon,
 joan ta etorri,lan ta atsedean,
 bakardade edo lagunarte on.

Nondik eta nola ez dakit somatzen.
 Bein-noizkoari ez egin jaramon-
 txingarra asi jatan danau kixkaltzen.

ILUNDUZ

Eguzkia galdu da mendi-atzean;
 hodeien artetik iluna hedatzen
 ari da harzapar luzeak; gogoa
 hego lodiekin maiztxe dit ukitzen.

Lanbro lodia ari zait sortzen barnetik
 eta nire baitan ezin ongi ikusi.
 Ahaleginetaan nago antxinako
 gauzak gogoratuz, barne-argigarri.

Txakurrak bezala ingura ninduten,
 zaunkaka, amo rruz hagin erakuska,
 ad urra jario, begiak dizdizka
 odoletan, hankak lurrean tinkatzen.

Ene animari adi, jan dezaten.

Jauzka ari zaizkit, animan hagin
 egin guraz. Zati bat kendu zeharka
 eta han dihoaz urrun ezkututzen.

Hauts artean azter, irauli, jaurtiki,
 hezur bat bezala drabilkidate.
 Haginen artean, odol eta zauri,

nire anima urrun jan ahal balute!
 Baina ezin eta behar dute etsi;
 txakurrek anima jaterik ez dute!

Haien zaratak biz

diezaidan barne-

muina mila aldiz,

itzar eta erne,

nai du t egin negar.

Izaki itun-antzo,

etor dantzan azkar

irrintzi ta zantzo.

NEGAR-DANTZA

Negar nahi dut egin,

uko barreari.

Ituna atsegin,

alaia mingarri .

Alaitassun-bidez

diz-diz doakidaz

gauzak begi-gainez

urrunago guraz.

Itunari esker

milaka izaki

nire barnera ager

tai gabe,sakonki.

Gogoa betetzen

didate gauero

ta dantzan jardutzen

aspergabe,ero.

BARNE-ERROTA

Arratsaldea ilun,
zeru goia lainoz.
Euriak etengabe
Kale-zoruan hots.
Etxeko epelean,
erdi triste,erdi poz,,
oroipenen aleak
barne-errotan ehoz.

Begi-itxirik eta
adimen-loturik
nire barnera adi.
Errota doinurik
aldatzeke;ez dakit
nor,bide urrunetik,
kanta ezezagun bat
doa aleturik.

AINHOA LORE EDERRA

Argi bigunezkousai
gozoko lorea zara.
Inguruan dena argi
ta usaiz duzu ikara.

Bizitzaz harriturik lez
poz eta irrifarrez zagoz
zure zuztar hezean zut,
nondikoa jakin-gogoz.

Bein aitatxo nekatuta
zetorren bide latz zehar,
bere atsedeen-ustek
izerditan itotzear.

Ondoko baratzen eder
eta atseginak arnasa
baretu zidan.Dardarka
eggin nuen ate-hotsa.

Belar bikainean etzan
 eta lur ezo-beroa
 laztandu nuen maiteki.
 Zeinen lur gozo-oparoa!

Amets-liluretan erdi
 lo nengoela,aize lagun
 batek astindu zituen
 nire soin-adarrak,legun.

Nire lore aztuaren
 hautsa baratze betean
 erori zen susmur
 geldi-sakonen artean.

Sustrai berrien irrikaz
 zegoen lur haretatik
 lurrun mehe-epela igo
 zen dena bertan bildurik.

Zure Ama-lurra eta
 biok laztanez gainezka
 ta gure erdian agertu
 zinen, argitan kulunka.

Zure errai samurretan nik

opari zuria egin

bitartean,zure beso

leun-maitatiak nire gain

itxaroz ingur: atuko

nauzu,zure jauretxea,

gorputz-anima nireak

utzi orduko,andraa.

JAURETXEAN OPARIZ

Zure iztar disdiratsuan

aterpean jarri auzpez

eta gur egingo dizut

eskaintza ta eskabidez.

Zure sabel gardenean

garbituko nire akats

guztiak okendu gozoz,

eta lotsaz eta ikaraz

helduko naiz zure bular

ederren jabe-alkira

damuzko maite aitortuz

mosu setatiz batera.

Zure ezpain beroetatik

edango dut barkamena.

Aho isilez begietan

egingo agur-omena.

ITAURREKO

Baserritarrak
soro bustian
biltzen. Idiak
lur-koloreetan.

Goldea lurra
isil ir .auliz.
Gerri makurra,
kopeta izerdiz,

dabil mutila
atze .an eta
aurrez, umila,
neska pertxenta.

LABAYRU-IKASTEGIA

BIBLIOTERA - LERIO

Sarr 23.359/93

Gara.

Tokia.